

# EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia  
EUSKARA

Lehen Hezkuntzako 4. maila  
2. proba

Egileak: Ainhoa Imaz  
Aitor Aurrekoetxea

ibaizabal



**Koadernoak irakurtzeko bakarrik da.  
Galdera guztiak  
ERANTZUTEKO ORRIETAN  
erantzun behar dituzu.**

**Ez idatzi ezer  
koadernoan.**

## ENTZUMENA



## HARTZA

Orain, elkarrizketa bat bi aldiz entzungo duzu.

1. Entzun aurretik, irakurri galderak.
2. Entzun testua, eta idatzi galdera bakoitzaren erantzuna (A, B, C edo D) erantzunen orrian.

01

Zertaz hitz egiten dute?

- A. Pirinioetako animaliez.
- B. Hartzez.
- C. Desagertutako animaliez.
- D. Mendiko animaliez.

02

Zein da Fernando Gerrikagoitiaren zaletasuna?

- A. Ingurugiroa.
- B. Animaliak.
- C. Batez ere hartzak.
- D. Otsoak eta hartzak.

03

Noiz egiten dute lo hartzek?

- A. Eguzkia ezkutatzean.
- B. Egunez.
- C. Ohea aurkitzen dutenean.
- D. Gaez.

04

**Non egiten dute lo hartzek?**

- A. Mendian, edozein tokitan.
- B. Mendian, beraientzat prestatutako txaboletan.
- C. Zuhaixka asko dagoen tokietan, beraiek prestatutako txokoetan.
- D. Kobazuloetan.

05

**Zenbat bizi izaten dira hartzak?**

- A. 25 urte gehienez.
- B. Ia 100 urte.
- C. 50 urte.
- D. 80 urte.

06

**Zein erasotzen dute hartzek?**

- A. Beste animalia batzuk.
- B. Gizakiak.
- C. Ez dute inor erasotzen.
- D. Umeak.

07

**Zer da entzun duzuna?**

- A. Egunkari bateko elkarrizketa.
- B. Egunkari bateko albistea.
- C. Irrati bateko elkarrizketa.
- D. Irrati bateko albistea.

## IRAKURMENA



Irakurri testua, eta erantzun 8-14 bitarteko galderei erantzun orrian.

## UR AZPIKO ALTXORRAK

Arnas hartzeko tutua eta betaurrekoak hartuta uretan murgiltzen bazara, hondarra, arroka eta hainbat izaki bizidun ikusiko dituzu: arraintxoak, izkirak, algak, olagarroak... Baina oxigeno bonbonak soinean hartuta ur sakonagoetan murgilduz gero, beste mota bateko altxorrak aurkituko dituzu: lingoteak, anforak, burdin harria... Altxorretan altxorrena, ordea, aspaldiko ontzi bat aurkitzea da!

Istripu baten ondorioz hondoratutako ontziak izan ohi dira. Agian gidariaren maniobra txar baten ondorioz hondoratu ziren, edo ekaitz batek bultzatuta arroken kontra egin zuten... Harrezkero, uraren azpian egon dira, arrain, hondar eta alga artean.

Denbora igaro ahala, itxura aldatu egiten zaie ontzi horiei: lehen ontzi handiak eta ederrak zirenak erabat deseginda egon daitezke ur azpian. Itsasoak hondatu egiten du egurra: uraren indarrak txikitu egiten duelako, animaliek jan egiten dutelako... Horregatik, ez da erraza izaten ontzi bat osorik aurkitzea; haren arrastoak baino ez dira egoten ur azpian, eta ez dute, jada, ontzi baten itxura handirik izaten.

Ikertzaileak bonbona handiekin sartzen dira ur azpira. Arkatz eta paper bereziak eramaten dituzte, ikusten duten guztia murrizteko. Aurkitutako gauza guztiei etiketatxo bana jartzen diete. Aurkitutakoaren arabera jakin dezakete zein garaitakoa zen ontzia. Bilaketa amaitzen dutenean, aurkitutakoa uretatik ateratzen dute, eta, gehienetan, museo batera eramaten dute.

Arantxa TXINTXURRETA (2009/04/28)  
[www.zernola.net](http://www.zernola.net) (egokitua)

08

Zer da beharrezkoa ur sakonetan murgiltzeko?

- A. Betaurreko onak.
- B. Bainujantzi handia.
- C. Arnas hartzeko tutua.
- D. Oxigeno bonbonak.

09

**Zer aurki daiteke ur azpian?**

- A. Arrainentzako janaria.
- B. Lingoteak, anforak eta abar.
- C. Hondarretan ezkutatutako olagarroak.
- D. Oxigeno bonbonak.

10

**Zein da ur azpian aurki daitekeen altxorrik preziatuena?**

- A. Piraten altxorra.
- B. Aspaldian hondoratutako ontzi bat.
- C. Itsasoan hondatutako egurra.
- D. Arrainak eta algak.

11

**Ikertzaileek zertarako erabiltzen dituzte arkatz eta paper bereziak?**

- A. Altxorrei etiketa jartzeko.
- B. Altxorretan marrazkiak egiteko.
- C. Ezertarako ere ez.
- D. Museoetako ontziei izenak ipintzeko.

12

**Non irakur daiteke testu hau?**

- A. Literatura lan batean.
- B. Entziklopedia batean.
- C. Egunkari bateko albisteen atalean.
- D. Aldizkari batean.

13

EGIA ALA FALTSUA? Markatu "X" batez laukitxo egokia, adibidean bezala:

	EGIA	FALTSUA
0. Ur azpian bizidun asko aurki daitezke: arraintxoak, izkirak...	X	
1. Ur azpian dauden ontzi batzuk arroken kontra jo ondoren hondoratu ziren.		
2. Urak bakarrik hondatzen du hondoratutako ontzien egurra.		
3. Denbora igaro ahala, urperatutako ontziei ez zaie itxura asko aldatzen.		
4. Aurkitutako itsasontziaren zatiak museora eramaten dituzte beti.		

*Idatzi erantzuteko orrietan*

14

Zein da testuaren gaia?

- A. Itsasoko arrainen ezaugarriak.
- B. Itsasoko altxorrak.
- C. Altxorrak.
- D. Piraten garaiko altxorrak.

## IDAZMENA

15

**IDATZI EGUNEROKOA**

Pentsatu bi egun baserri eskola batean eman dituzuela, bertako bizimodua ezagutzeko.

Irakasleak baserrian bizi izandako esperientzia egunerokoa idazteko eskatu dizue.

Jarraitu gidoiari:

- Idatzi eguna.
- Kontatu zein joan zareten, nora, zertara...
- Azaldu zer egin duzuen.
- Kontatu zer gustatu zaizuen, zer ez, zerk harritu zaituzten, zertan sentitu zareten ondoen edo gaizkien... eta azaldu zergatik.

**Testuak, gutxienez, 60 hitz izan beharko ditu.**